

Zaintza sistema feminista eta komunitario baterantz pausoak ematea : familiarizatu gabea, arrazakeriarik gabekoa eta ez sexista.

▲ Gizonek zaindu behar dute.

▲ 30 lanordu astean eta gehienez 7 ordu egunean.

▲ Kontziliazio erantzukiderako neurri zehatz eta eraginkorrak (gizonen inplikazioa ziurtatuko dutenak), eremu publiko zein pribatuan aplikatzekoak. Besteak beste, adingabeen zaintzarako lanaldia murrizteko eta egokitze eskubidean adina luzatzea.

▲ Binkulogramak: odolkidetasun-mailaz harago zaintzeko baimen eta lizentziak. Familiakoak ez diren pertsonak zaintzeko neurriak baimendu langileei.

▲ Osasun mental komunitario eredu baterantz bideratu, tratamendu indibidualizatutik eta osasun mental isolatutik haratago doana. Bereziki zaintzaileen osasun mentalean arreta jarri.

▲ Zis-hetero arauan zentratu gabeko zaintza sistemetarantz pausuak ematea LGTBI+ ikuspegia txertatuz eta erabiltzaileen zein langileen sexu-orientazioa, genero-identitatea eta nahiak errespetatuz. Zaintza zerbitzuetan LGTBI+ ikuspuntua bermatzea.

Eskolaz kanpoko jarduerak, udalekuak, eskola-zaintza eta eskola-laguntza publikoak eta doakoak, gizarte arrakalarik gabeak izan daitezten.

Aniztasun funtzional eta ezgaitasunaren alorrean, lan-baldintza duinak enplegu bereziko zentroetan. Bereizketarik ez eman gainontzeko langileekiko eta enpleguaren funtzioak eta azpiegiturak moldatu pertsona bakoitzaren beharrekiko.

Adineko trans pertsonen ibilbideak eta bizitzak aitortzea, bereziki lan-esparrutik baztertuak izan ziren trans emakumeenak. Behar espezifikoak erantzuteko baliabideak eta osasun mentalerako beharrezko tratamenduak

Gutxieneko pentsioak gutxieneko soldatarekin parekatzea.

Zaintza pertsonan oinarrituta, entzuna izatea eta zaintza-ereduaren diseinuan partaide izatea , herritarren parte-hartze espazioetan.

HERRI AKORDIOA

ZAINTZEN ALDARRIKAPEN TAULA ARABA



Esku artean duzun txosten hau egungo zaintza sistema iraultzera bidean, Araban eman beharreko hainbat aldaketa eta exijentzia biltzen dituen aldarrikapen taula da. "Denon Bizitzak Erdigunera" dinamikaren baitan garatu dugun ikasturte osoko prozesu baten ostean, Arabako eragile, norbanako, zaintzaren sektoreko langile eta sindikatu ezberdinen artean eztabaidatutako eta adostutakoaren emaitza da. Aldarrikapen taula hau, eragile ezberdinen arteko aliantzak sortzeko, instituzioak seinalatzeko eta presionatzeko eta zaintza-sisteman aldaketa errealak lortzeko baliatu nahi dugun erraminta da. Beraz, norabide horretan lanean jarraituko dugu.

SINATZAILEAK:

- Arabako Mugimendu Feminista
- ATHCA
- Pentsionistak Araba
- Ernai Araba
- Erresidentzietako sektorea
- Mujeres de la diáspora africana
- Zaintza Araba
- Enarak kooperatiba
- Gasteiz Antirazista
- LAB / ESK / STEILAS
- Lagundu elkarte
- Lumagorri
- Zabalgana Hezkidetza Sarea

Adineko pertsonentzako eta dependentzia edota ezgaitasunerako bideratutako zaintza-zerbitzu guztiak progresiboki publikatzea, eta sortzen doazen berriak publikoak izan daitezela

- ✓ Egungo egoitzak publiko bihurtzea eta pertsonen ingurunetik hurbil dauden egoitza txiki eta etxebizitza komunitario berri publikoak sortzea, behar demografikoak kontuan hartuta.
- ✓ Arabako Foru Aldundiari eskatu ratioak mendekotasun- eta ezgaitasun-zerbitzuen beharretara egokitzen dituen behar bezain foru-dekretu garatu ditzala.
- ✓ Zaintza duinak etxean, Gizarte-zerbitzuen eta Arabako ESlaren koordinazioarekin.
- ✓ ELZ publiko bihurtzeko eta zerbitzua hobetzeko urrats zehatzak ematea, pertsonen beharrak benetan ase ditzan:
 - Beharrezkoa denean 2 langile
 - Fisioterapia, geriatría eta psikologia bezalako zerbitzuak izatea
 - Gutxienez 2 orduko arreta
- ✓ Zaintza premiak eta babesgabetasun egoerak identifikatzea ahalbidetzen duen etxez-etxeko bisiten programa.

Zaintza langile guztientzako lan-baldintza duinak

- ✓ Arabako egoitza pribatuen eta etxebizitza komunitarioen sektore-hitzarmena sortu.
- ✓ Egoitza-sare pribatuko langileen lan-baldintzak sistema publikoko langileekin parekatzea.
- ✓ Etxeko eta zaintza-langile egoilarren erregimena desagerraraztea. Etxeko langileen lana txandakakoa eta lanaldika izatea
- ✓ Etxeko eta zaintza-langileak lan-erregimen orokorrean sartzea, beren eskubideak bete daitezen :
 - Kaleratzeen osteko kalte-ordaina
 - Ikuskapenak
 - Lanaldiaren ordutegi kontrola
 - Oporrak eta atsedenaldiak

Atzeritartasun legearen abolizioa. Erregularizazioa pertsona migratuentzat.

- ✓ Erroldatzeko eskubidea pertsona guztientzat, inoako betekizunik gabe.
- ✓ Atzeritartasun-eskumena tokiko erakundeei igarotzea, betiere atzeritartasun legea indargabetzeko eta pertsona migratuek bizi dituzten zapalkuntzak ezabatzeko bideak aztertzeko.
- ✓ Migratzen duten pertsonentzako udal harrera-zerbitzuak. Harrera prozesuan aholkularitza eta laguntza emango dituen eta beharrezkoak diren kudeaketak arindu eta erraztuko dituen zerbitzu publikoa, barne hartuta etxebizitzaren arazoari irtenbidea emateko esku-hartze erreal eta bitartekaritza eraginkorra ere.
- ✓ Formakuntza erraztea eta ikasketak homologatzea. Ordutegiak zabaltzea eta malgutzea, bai eskola-orduetarako bai praktiketarako. Lan-ordutegiagatik ikasketekin bateragarri egiteko arazoak dituzten pertsonen, hain zuzen ere, etxeko eta zaintzako langileei, alternatibean eskaintza.
- ✓ Pertsona trans migratuen errekonozimendua. Dokumentazioan benetako nortasuna islatzeko tramiteak erraztu eta arintzeko baliabide espezifikoak. Erregistro-aldaketak egiteko oztopoak kentzea.

Arabako 8 kuadriletako landa eremuan oinarritzko zerbitzu publikoak bermatu eta deszentralizatu.

- ✓ Osasun mentalaren, ginekologia/obstetriziaren eta pediatriaren lehen mailako arreta landa eremuan bermatu, adibidez, zerbitzu ibiltarien bidez.
- ✓ Arreta goiztiarra, hezkuntza berezia eta aniztasun funtzional/ezgaitasunaren arreta zerbitzuak landa eremuan bermatu, adibidez, zerbitzu ibiltarien bidez.
- ✓ Prozedura administratiboak egiteko aukera landa eremura hurbildu (adibidez, errenta kanpaina edo Lanbide).
- ✓ Arabako Foru Aldundiaren autobus konexioak hobetu, areagotu eta mugikortasun murrizta duten pertsonentzat egokitu.
- ✓ Udalerrri mailan, herrien arteko janari, edari eta bestelako produktuen zerbitzu ibiltaria indartu.
- ✓ Trebiñuko biztanleek administratiboki bizi duten gatazkari erantzun. Zehazki, zaintza-zerbitzuetara sarbidea eduki eta erabili ahal izatea, hala nola, ELZ, eguneko zentroa eta gainerako eskualdeetako egoitza pribatuak.